


BASOKO LOREK



27
Etxebarria'tar Juan Anjel

B A S O K O
L O R E A K



S. Anton'go Katekesia
Euskal-argitalpenak

OPARI:

*Gaixoaldian diruz, itzez eta biotzez
lagundu dausten guztiai.*

ITZAURREA

Agur irakurle: Santurtze'ko semea nozu, jaiotzez erdalduna. Euskaldun barria, beraz, euskaltzale zarra baiña. Oso gazte nintzala, arrazaren abotsa senti neban ene baitan erraie-tatik deika. Arrezkero, maitasuna dot ziri-katzaille, gidari ta elburu. Euskalerra ta euske-raganako maitasuna, alegia. Berari zor yakoz olerkiok. Eurotan okerrik edo utsik aurkitzen ba'dozu, maitasun-zitu dira-ta, parkatu egida-zu. Erlijio, gogo ta gizarteko bizitza gaitzat ar-turik, nere olerkiai tankera barri bat emoteko nengoan ta... etsaiak oldartu yatazan dan-dana zapaldu bearrez. Urrengoan nere asmo eder ori bete al izango dot, Jaungoikoa lagun!

Anartean, gora euskera euzko arrazaren iz-kuntza.

Egilleak

ESKEINTZA

*Ekudor'en, El Oro'n, mixiolari dagoan
Estonba'tar Imanol apaiz jaunari.*

Urrungo alorretan izerdiz ereiten
diarduzun ereille maite, abeslari:
Itzuli zaitez uzta barria bilduten.

Lurra elkor ba'da be, zure izerdiari
esker indartsu erne da azia; luzaro
egon ba'da lurpean, oin da urrezko gari.

Itxaropena galdu ba'zenun zearo
erneazi dezala uzta-eguzkiak.
Aizeak galburuak daragiz leunkiro.

Begira, alai bekizuz gaur biotz-begiak.
Erein-bearrak sortu neke-lor-leizean
gaiñez dagiketsue galburu mardulak.

Arin bai arin artu itaia eskuan.
Pixuaz galburuak makurtuak dira,
uztaren yabea noiz etorriko ote dan.

Zitu barriak emon guraz dago lurra.
Orregaitik, ba, uzta jaso ta azi barri
erein zazu, ereille maite, abeslari.

EDURRA

Ikusi dot leiotik
edur zuria.
Dana estaltzen datza
edur garbia.
Etxe epel ezkutuan
bero guztia.
Aonelantxe poz yat
gaurko otz andia.

Goizearen alatza!
Lurra pakeak
dauka bere besotan.
Edur zuriak
garbitasun biurtu
ditu loituak.
Errian ixil datzaz
etxe guztiak.

Mara-mara jausi da
gabaz edurra.
Astru batek bezala
oinpetu lurra
ta argiz betetan dau.
Naiz ta gogorra
izan artzen dauana,
dan jasanorra!

Aitzan eme, bedarran
da aztagea.
Zer ete dakus ortik?
Eder-zalea
dakus beraren leraz.
Irribarrea
da mendian eguzkiz;
bean ordea...

Mendietatik dakus
zapal, aztuta,
kaleetako edurra,
danak loituta.
Mur-mur jasten ari da
orduan eta
barriz zerurantz doa
malkoz urtuta.

EDURRA DANEAN...

Edurra! Begion poza!
Leioan nago ikusten.
Gogaiak, maro antzean,
gogo dauste estalduten.

Txoriak igesi ikaraz.
Gizonak arin, pozago,
etxera ta kalea uts.
Utsago ta zuriago.

Edurra ari da tai gabe;
naiko da, noan barrura.
Su-ondoan eserita
amets zarrak barri dira.

Ekin t'ekin asmamena.
Gero irakurtzen asten naz.
Edurra leiotik deika
amets ariñen eskeintzaz.

Noizean bein, ara naiez,
leiora ditut begiak.
Su-ondoan, baiña, leunki
laztanduten nau beroak.

Burua sutondo gori
biur yat. Garrak lez, gogai
argiak goratzen yataz.
Liburuan daurkit sugai.

Unetxo batez itxi dot
liburua. Alboetara
begira ta arrausi dagit.
Au biziera ederra!

Edurra nare jausten da;
suak geldi igoten dau.
Bioi begira nagola
gogo-pakeak artzen nau.

Neguko eguraldia.
Etxean dogun beroa!
Mendian edur zuria,
gogoan amets gozoa.

ESKUTITZA

*Etxeberria'tar Andoni'ri, Donosti'ko
Seminaria egiñiko eskutitza.*

Gazteiz'etik, Zemendian.
Nere aizkideari,
edo bardin dana, Etxe...
ta abar Andoni'ri.

Gaur zortzi dirala jaso
neban zure eskutitza.
Ageri danetik ondo
dabil zure bizitza.

Barri onik asko daukat
zuri kontatuteko.
Lar ez luzatutearren
orra or batzuk gaurko:

Barri, barri, barri, barri;
barri, barri, barri, bar...
barri, barri, barri, barri,
barri, barri ta abar.

Agur, ba, urrengorarte.
Gure umore ona
ez daigun gal, ezta ere
euskaltzaletasuna.

Agur bigarrenez. Bizi
zaitez osasunagaz.
Agur barrero, laugarren
urtean "post pankartas".

MAITASUN-ITURRIA

Zure aurrean nagola,
Jesus maite-maitea,
nabaituten dot atean
ez daurkidan pakea.

Maitasun billaka nabil
lur neketsu onetan.
Maitasun utsik, ordea,
ez dago gizonagan.

Oiñazez nastauta dago.
Biotza saminduta
datza maitetasun-ezaz.
Ni nagon itsututa!

Jesus Jainko betikorra,
maitasun-iturria:
Zeu zara asetu ta ikuzten
daun ur geza-garbia.

ILDAKOEN ARGIA

Illargi otza zeruan dago.
Il-erri illun bakarra
ixillik datza aren argitan.
Illargia, illen izarra!
Bide-erakusle doguz izarrak:
argiaz itxaropena
dakarkigute bizi-bidera.
Izarra, itxaro-ikurpena.

Illen izarra, zein otz zarean!
Zer dala-ta, izar ori?
Beko biderik ez da illentzat.
Ez eskatu, ba, iñori
laguntasunik, ildako gizon:
ez da geiago argirik.
Oin naiko dozuz biziko lanak:
ba al darioe dirdairik?

GABON GABEAN

Gaur Jesus jaioko da.
Nun jaioko ote da nun?
Arin gure biotza
atondu dagiogun.

Lurkoiarentzat ez da
olako pozkaririk.
Nun jaioko ote da, nun,
gure barnean ezik?

Zeru-lurreko Jauna
da ta gure Egillea.
Garbitu ta berotu
daigun gure barnea.

ANDRA MARI SORTZEZ GARBIARI

Ortzirik ez, leizerik ere ez zan aldian
Jaungoikoaren naian jaioa zintzazan.
Ama zorioneko batek bete eban
Goikoaren ametsa gizonen artean.

Garbitasun-dizdiraz lurbira osoa
argiz betetzen dozu. Gizadi gaixoa
argi orren laguntzaz zerura artez doa.
Arek ere damotso bear daun beroa.

Izarren argia-antzo, urteen urteaz
eldu yaku zurea lurrera. Gogoaz
usmautako egia, egiaz egiaz
dazaugu, eun urtetik ona, fedeagaz.

Arrezkero garbien ispillua zara;
gizon guztientzako eredu goitarra.
Zu ezautzeak poza dakarsku gogora.
Zugana dau kristiñau bizitzak joera.

Orroaka baitabil beti lur guztian
gure etsaia, zintzoak ondatu-gurean,
guztia okertu ta loitzeko zorian.
Ludi osoa dago gudu gogorrean.

Itsaso amorratu ta loiazen ura
atxa jo ta apar zuri biurtzen da, gora
igoten dabelarik. Olango Zu zara.
Jaunan graziak urten bai eutzun bidera.

Agur Erregin ori, gure itxaropena.
Biur egizuz zure begiok gugana.
Jainkoaren ta gure ama guztiz ona,
entzun egizu gure otoitz beroena:

Salba gaizuz munduko ekaitz gogorpean
gaudenok; artu gaizuz zure magalean.
Gure gorputz-arimak zaindu lur onetan
ta ez eiguzu itxi jausten arriskuan.

ITUNA

Ortzea illun dager.
Euriak kalean
soñu aspergarria
jotzen luzaroan...

Nere barrua illun.
Gomutapen otxak
biotza jotzen. Kale
ta biotz loituak...

AGUR

*Seminarioa izterakoan, bederatzi urtean
ikaskide izandako nere lagun maiteai.*

Kai ezkutua itxi ta kulunka asten dan
itsasontzi antzera naukazue ikaraz
Seminario maitea izteko orduan.
Kaia maitagarri yat, ugiñen bildur naz.

Urrunean dakusdan odei-ertz urdiña
elburua dot ala bide ezezagunen
asikera? Itsaso gelditu eziña,
biotzaren irudi noiz arte izanen?

Bederatzi urtean ondo ornidu dauste
ontzia. Itsasoa zabal ta sakona.
Neu-ontzia ekatxan ondatuko ete,
lur barrietan billa nairik zoriona?

Nere lagun maiteak, zakidaze izar
argitsu itsasoko ibillaldietan.
Geroko abadeak, kai-gizon onak, sar
nagizue Zeruko Kai Atsegiñean.

ZERBAIT

Itun-itunik nago.
Barre baiño gurago
dot negar eitea.
Zerbait dodalakooan
nago aspaldi ontan.
Galdu dot pakea.

Indarrrik ez soiñean:
natzan lo gerizpean...
Ez dot adorerik
ezetarako; guztiz
aspergari yat bizitz
au. Zerbait ba-dot nik.

Miñez daukat biotza,
kemenik barik, otza;
ez dau ezer maite.
Onduko al naz al bait
ariñen! Baiña... zerbait
ba-dot nik. Zer ete?

AMA!

Aspalditik naukazu
miñez beterik,
biotzari odola
dariolarik
lagunetan iñork ez
ikusi barik.
Ama begira naizu
biotz samurrik.
Adizkide onenak
ez dabe ulertzen
nere miña. Poz-itzak
birresan arren
ez dakie arantza
nundik dagoen.
Ama begira naizu,
begira: emen.
Gau da nere ariman.
Au gau illuna!
Itzal bildurgarriak
datoz nigana.
Nun ezkutatuko naz?
Ama laztana,
itzul zure begiak
gaxo onengana.

Miñaren miñez nabil
zoraturikan,
bide erdian galdurik,
noraezean.
Bide-lagunik ez dot.
Norantza joan?
Ama eroan naizu
zure eskuetan!

GAIXOALDIA

Illabete bi dirala
ogean gaixorik natza.
Nere gela
da espetxe ta baratza.

Illabete bi dirala
ogean gaixorik natza.
Nere gela
gaur pozgarri, biar latza.

Lagunak ikustaldia
egitera datorkidaz.
Latz-aldia:
borreren menpeko naz.

Itz gogaikarri-txirringan
oiñazez nabe akitzen.
Arpegian
irribarrea il-urren.

Illabete bi dirala
ogean gaixorik natza.
Nere gela
gaur da atsegin-baratza.

Nere gogaien aldia
da. Orain ni agintari.
Poz-aldia:
nik agindu, eurak ari.

Maitetasun, anditasun
ta jakintzazko gogaiak
ditut lagun.
Azkenik ez ba'leu jaiak!

Illabete bi ogean
etzun bearra bai latza!
Baiña ortan
daukat atsegin-baratza.

URRENGORARTE

X X'ri

Bederatzi urteetan izandako lagun,
biotz-biotzez agur eiten natorkizu.
ez dakit gogaikarri izango naiatzun.
On utsa zara-ta, arren, erantzun eidazu.

Ba-dakizu gudari nijoala laster.
Zuena ez da, gero, soldautza makala.
Alan be, nere-a be ez ta, ez ba nago oker,
lengo armak bear-ko. Ain nozu argala!

Au dala-ta, egizu otoi nere aldez.
Gurenda lortzen ba'dot, gero osterakoan,
koroia ezarriko dautzut poz-dardarez.
Garaitzen ba'nabe, erdu zu nere laguntzan.

Zeozer esan bear dautzut ta ausartu ez.
Parkatuko daustazu? Orra argi esan:
Neuk be otoi dagiket beti zure aldez.
Ez dozu nere bear Kristo'ren soldautzan?

Onartu nere eskeintza ta eskabidea.
Onenbestegaz agur ta eskerrik asko.
Zaitetz beti Jaungoiko ta Euskal zalea.
Urrenarte ondo izan. Ez zaitut aztuko.

PAX

*Et pax Dei quae exsuperat omnem
sensum, accipiat cor vestrum et in-
telligentias vestras. (Plp. 4, 7).*

Poz-pozik nago:
Jainko-grazia
orduoro dago nigan.
Nere zeruan
beti argia
naiz gaba naiz eguna izan.

Nere menditan
lore bigunak
ekatxak gogor jo arren.
Nere ibarretan
ba-dago ura
beti kantari ta garden.

Munduko bide
guztiak nere
ditut. Zoraturik nago
pozaren pozez,
Jainko-grazia
beti niregan bai dago.

LUKAS IL DA

Aramaio-ko baserritarra,
euskaldun jator-zintzoa:
Jainko, aberri, sendiagazko
amets goxotan itoa.

Gure igazko eguneroko
jardunaz oroitzen zara?
Jaungoiko, sendi ta aberri beti
ekarri bear aora.

Gure igazko eguneroko
jardunak alda-bakoak
izaten dira gure ezpanetan.
Iñork ba'leukoz obeak...

Jaungoiko, sendi ta aberria
ezin kendu biotzetik.
Lukas jatorra, gure igazko
lanari ekin or goitik.

ZEU BETI

Antziñatik dot ezagun zure
izena; baiña izana,
zoritxar baltzez, berandu ikasi
dautzut. Len, sarri, zugana
eltzeko miñez egoten nintzan.
Laño baltzak zareana
kenduten eusten begietatik.
Bai alper nire yorana!

Gau baten, baiña, maite-argiak
zure zerua iragarri
eustan zabalki. Ta arrezkero,
nire biotzeko erri,
gau t'egun nabil zure argitan.
Arrezkero, Euskalerra,
zure argitan, nire zeregin
eta ametsetan Zeu beti!

BITARTE

Arat-onat,
enara bat
lez egaz zabiltz, betiko kabi
ta udabarri
nun ezarri
ez dakizula. Egoak garbi
iraun, otoi,
iñun ez loi.

Gaiak batzen
ekin, arren.
Zu otzez gaur il arren, kumeak
berotuko
dira arroxko
zuk egindako kabian, lumak
distirakor,
kantik pozkor.

EREDU

Gorputzez garbi, eder ta lerdan.
Gogoz argi, sendo ta alai.
Asmoz zintzo ta gogor. Egitez
luze, zabal, sakon, nunai.

Semeak azi; ba-diñokezu,
Jainko-ikustez gotzon-lagun
zaitezenean, nire azia
auxe: "euskaldun-fededun".

JO-MUGA

Soiñez liraiña, gogoz bikaiña
zara. Ba-dakizu arin
ibilten lur-gain. Mundua ikusten
be ikusmena dozu fin.

Zure inguruan ludia bigun,
gizadia, barriz, samur.
Euskaldunari dagokionez,
egintzez luze, itzez labur.

Gaztaroa arin joango yatzu.
Azken ordua eltzean,
esan begie zugaitik: kristau-
euskalduna zan benetan.

ZELAN?

Goizetik gabea zure
billa ibilli naz, pozik
ta biotza su-garretan;
burua ametsez beterik.

Azkenean topau zaitut
gitxien uste nebala:
arpegiz irribarretsu;
gorputzez, barriz, yaukala.

Buruan, bai, sortzen yataz
ametsak gozo-gozoro;
baiña, esanak esan, ez
biotzean maite-giro.

Illuntzerako, torretik,
eliz-kanpaiak dilin-dan.
Maite ete nozu, mutilla?
Bai orixe! Alan olan.

ARRAZAREN LORE

Arrazaren indarra odolean bizi
daroazu. Arrazan gogoan musuan
daroazu dizdizka. Arrazaren bitxi
eder ori, jarraitu kantuz eta dantzan.

IKASKIDE BATI

Euskera ikasteak illobian jarri
omen nau. Ez uste, lagun, orren gauz-ez
nazanik. Zeu lelo bat zara. Ni, barriz,
ikasiago ta geiago adorez.

OIARTZUNA

*1954-ko azkenengo EUZKO GOGOAN
Aurraitz'ek egin DEADARRA'ri eran-
tzuna.*

Aurraitz'ek "itzar adi" egin dau deadar.
Nere barru barruan oiartzunak dar-dar:
"Itzar adi..." Ba-nago lanerako itzar.

Arrezkero besteai deadarka ari naz:
"Itzar adi...", lotatik iratzartu guraz.
Oiartzunik ez; biotz sakonik ez, beaz.

Nere oiu zolia itzaliz dijoa.
Indarrak batuz orra or zoliagoa:
"Itzar adi!!! Galduko ete oraingoa?"

Nere lanen artean adi-adi- nago
ia "itzar adi" ka oiartzuna urrungo
biotz sakonen baten noizbait adituko.

JAUNGOIKOA'ri

Nazan guztia ezerezetik
atera ninduzun Jauna:
nere utsean murgil egiñik
biurtu nadin Zugana.

ABERRIA'ri

Asaba zarrak gertuko odolak
nere soiñean diraki.
Izango al da zure bizitzak
diz-diz dagian ederki.

ADIZKIDEA'ri

Biotz-begitan zaitut dardarez.
Bat dagigun soin-beroa,
bakar-bakarra, laztan emanaz,
bai dogu gogo-asmoa.

BERTSOLARIAK

*1963-ko Iraillaren 22-gnean
Bilbo'n Instituto'ko ballan.*

Zerua illun, lurrean bero.
Bertsolarien begira
millaka lagun; oraïndik ere
euskaldunak bizi gara.

Aurreko oltzan zazpi kantari
ta millaka begi tinko.
Batzuk bertsoak bota, besteak,
sari legez, barre pranko.

Bertsolarien ateraldiaz
entzule bat berotu ta,
ori ederto! deadar dagi.
Ingurukoak barrezka.

Ekitaldia aurrera doa.
Bertsoen mamiña ausnartzen
dago jendetza. Azkena da ta...
Iraungo al dogu! Amen.

BAKE

*Sollube-tontorrean.
Mañu'ko errian*

Goiko baserri-eskaratzean
andra-gizonak, aitona,
seme-alabak, batu barriak.
Ba-da apari gerta-lana.

Aitona bazter baten jarrita.
Andra dabil su-ondoan.
Senarra apaintzen dago jazkera.
Semeak adi, urrean.

Egun-arteko lanak auldata,
gorputzak aztun ta baldar.
Abotsak ixil-ixillik doaz
illunabarrean zear.

Soiñak nekea, gogoak lana.
Solo-basoetan edan
daben bakea oraintxe dager
euren begi ta itzetan.

DEBA'N JAI

1965-ko Maiatzaren 16-garrenean.

Eguzkia goiz-erdian
bere gingaruntz, astiro.
Eusko gaztedia sutan
jartzear, irriz goxoro.

Eguzkia urrun, bidea
egiñik; gazteak asi
dira berotzen; jendea
onez, elkarrekin nasi.

Txistu-ots ta abots sendoak,
kale-edantoki zear,
sortua dute gogoak
opa zuten giroa, azkar.

Aberri-kanta ta dantza
berez irtetzen guztiai.
Estalpe ta enparantza
ikusiz, ainbat amets-gai!

Arrats-beran, guztiak bat,
irrintziaren zolia!
Gazteak millaka... zenbat?
Danak bat... ta utz zenbakia.

Lengo igandean Deba'n jai.
Ta, mutil, Deba'n zer berri?
Etorri nintzaizun alai.
Deba'n JAI ez, Deba'n ERRI.

NEREAK

Oso nereak zarielako
maite zaituet biotzez.
Gutziz zuena naz-eta maite
zaituet odol txit gaztez.

Euzko-mutillak, mendigoizale;
euzko-neskatxak, dantzari;
Euzko-gizonak, langille zintzo;
euzko-andrak, etxe-euslari.

Euzko apaizak, fede-ereille;
euzko-prailleak, ikastun
zorrotz ta sakon. Euskaltzaleak,
euzko-abendaren lagun.

Euzko-itsaso, lur, mendi, basoak.
Lengo, oraingo ta geroko
euskaldun danak, biotz-erdian
josi zaituet betiko.

ARRAZAREN DARDARA

Neska-mutillak mendian alai
abestuz eta jauzika.
Neska-mutillak, mosuan dirdai,
mendian barre zantzoka.

Mendi-puntatik ikusgai eder:
gure itsaso ta zelaiak.
Biotz-barnetik urrun-miña ager;
urrutira adi begiak.

Illuntzerako erriko plazan
euskal gaztedi zintzoa.
Dantza azkatuan eta korruan
axe euzkotar beroa!

Korruan ari giñala-irrintzi,
barre ugari ta algara-
zure eskuari lotuta senti
neban arrazan dardara!

MENDITARRA

Mendi-artean jaiorikoa.
Eusko-baserrian bizi
ta azi zara, arrazan lore.
Zelaietan azke igazi
dozu gaztaro bikaiña, pozik.
Lur lakarrak ez dau ezi
zure izatea ta erraietan
daroazu Ama Izadi.

Menditar neska, latz eta jator:
Aita-amaren baserria
itxi ta urira zatoz jauzkari.
Beko joan-etorria
ez yake eder begi otzanoi.
Zelai bai'litzan uria
dozu igaroten. Ta, zeu, kaletar
orreintzat mendi esia.

EDER OSOA

Arpegi sendo orrek-
euskotar-itxura-
Begi itun-sakon orreik-
euskotar-tankera-
ezpan leun-mamintsuok-
euskotar-dardara-
soin mardul orrek-gure
arraza berbera...

Zeozer bear dabe,
gaiñez, euskotarra.
Ene gogo otz onetan
biztuteko garra...
Zure izate griñatsu
orrek ele ederra
eskas dau, nire daiten...
euskera bakarra.

GOGO BARRIA

*Anboto'ko atxetan amildu dan
Arrizubieta'tar Agustina'ri.*

(1967)

Neska gaztea:
sendo gorputza,
alai gogo,
bipil biotza.

Mendira joan
atseden-ustez.
Eriotza aurki,
arrasti batez.

Arraza-biziz
soiña gaiñezka.
Arraza-iltamuz
gogo alaka.

Mendian amil,
gorpu ageri.
Gau illunean
gorputz bat zuri...

Anboto'ko atx-
gaiñean gazte-
odola sorgin-
kutsuaz naste.

Gaurko odolaz ta
amets uts-utsaz...
Antxiñagoko
sorgin-lilluraz...

Gogo barria
sortuko yaku,
... eup! Eta guri
nork kukurruku?

Gogo barriak
eraginda, lur-
gain narraz, zeru-
gain egaz... agur!

LAIÑO

Arratsaldea,
laiño-artean,
negar-jario
bete-bete.

Bizia nunai
dager ituna.
Erio-itzala
ez da urruna.

Zein ezkutuki
illun-atzetik?
Onen ondoren
bai ete egirik?

Oi Bizi, ezin
zaikedaz atzi.
Erdu, Erio,
zeu, bai, ziurki!

UR-LO

Mendian bera
erreka abesten.
Zelai-aldera
jauzka, amets baten.

Egiñik bide,
argi ta irudi
ederrak bere
barrun iruntsi.

Zelaian dago.
Ezin da amil
iñun geiago,
geldi ta ixil.

Neu bere joan
nintzan, antxiña,
nire bizitzan
dana atsegiña.

Ase naz arin,
argi ta lorez
nire zorun-min
au il bearrez.

Ur-lo geldi naz.
Lorak ta argia
ondora yataz:
agur bizia!

MENDIKO DEADARRA

Algorta'ko Oregi'tar Pili'ri:

OLERKARIAK :

Eguzki sor-berriak
gabeko illuna
urratuaz batera,
itsaso-lurruna
jaso-ala, mendian
dabil oiartzuna.
Oiartzunak zer dion,
ederra dau guna,
jakin gura ba'dozu,
entzun, euskalduna!

OLERKARI LAGUNAK :

Gure Ama Izadiak
mendian irrintzi.
Itsasaldeak dauka
zidarrezko jantzi.
Basoan euzki-itzalak
leiaketa bizi
darabille, ia nor
jartzen dan nagusi.
Bertako gora-berak
entzun ta ikasi.

OLERKARI ENTZULEAK :

Batu gaitezan, lagun,
mendi-tontorrera.
Urrunean kresala,
inguruan ira;
Mendiko ikaskizuna
sartuizu gogora,
kresal-garo usaiñez
bildurik. Ta aurrera
bidean, eldu arte
zeru-argitara.

BASOAK :

Urteetan lurreon,
zan eta gun, nago
josirik; sendo oi nintzan
biziten lenago.
Lurra aberats; zerua
ur-emonkor; pago-
lizarretan ugari.
Euskaldunak gogo
ebena nintzan-eta...
Negarra ixil bego...

BIDEAK :

Ama Izadian gure
basoa zan apaiz
nagusia antxiña.
Nire bidetik maiz
etozan len burdiak
intziriz ta izerdiz
gizonak, aldatz-gora.
Txoriak abestiz,
lurraz bat, basoari
lotsa erakutsiz.

ERREKAK :

Orain guztia aldatu
yaku emen, baiña.
Oin arrotzak zapaltzen
dabe mendi-gaiña.
Aizkorak murriztu dau
zugazti bikaiña;
neuk be galdu dot lengo
azkatasun-zaiña,
basoan zear dabil
izketa zikiña...

EUZKO GIZONAK :

Oi baso, baso itzal,
zure deadarra
entzun ta emen nozu.
Soiñean indarra
daukadan bitartean
zukanako garra
bizturik eukiko nik.
Egiñaz bearra,
zuretzat nire bizi
ta nire negarra.

EUZKO EMAKUMEAK :

Oi baso, baso kutun,
zure naigabea
oartu ta emen naz.
Barruan maitea
nabaitu-bitartean,
nadilla zurea.
Torizkizu zuretzat
nire errai-labea,
egun ta beti, nire
begien pakea!

MENDIKO TONTORRAK :

Entzun al dozu, gazte,
oiartzun ixilla
zure barru-barruan?
Zuzentza-makilla
eskuan, maitetasun-
zorro biribilla
bizkar-ganean, zatoz,
bidazti bipilla,
basoan zear, aldatz-
gora, nire billa.

BILLABIDEA

| <u>Izenpuruak</u> | <u>Orrialdeak</u> |
|---------------------------------------|-------------------|
| Agur | 18 |
| Ama | 20 |
| Andra Mari Sortzez Garbiari | 15 |
| Arrazaren Dardara | 40 |
| Arrazaren Lore | 32 |
| Bake | 36 |
| Bertsolariak | 35 |
| Bitarte | 28 |
| Deba'n Jai | 37 |
| Eder Osoa | 42 |
| Edurra | 6 |
| Edurra Dancan | 8 |
| Eredu | 29 |
| Eskeintza | 5 |
| Eskutitza | 10 |
| Gabon Gabea | 14 |
| Gaixoaldia | 22 |
| Gogo Barria | 43 |
| Ikaskide Bati | 32 |
| Ildakoen Argia | 13 |
| Irukoitz | 34 |

IzenpuruakOrrialdeak

| | |
|----------------------------|----|
| Ituna | 17 |
| Jo-Muga | 30 |
| Laiño. | 45 |
| Lukas II Da | 26 |
| Maitasun Iturria | 12 |
| Mendiko Deadarra | 48 |
| Menditarra | 41 |
| Nereak | 39 |
| Oiartzuna | 33 |
| Pax | 25 |
| Ur-lo. | 46 |
| Urrengorarte | 24 |
| Zelan? | 31 |
| Zerbait | 19 |
| Zeu beti. | 27 |

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Berisoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar-Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope deVega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)